



Onarpena

1 Zenbait lekutan onar zaitzaten, ezaugarri batzuk izan behar dituzu. Zer ezaugarri? Erlazionatu.

- | | |
|---------------------------|------------------------------------|
| ● errusiar mendia | arropa egokia izatea |
| ● komunitateko igerilekua | gutxieneko garaiera bat izatea |
| ● natura-parke bat | nortasun-agiri bat izatea |
| ● hegazkina | markatutako ibilbidetik ez irtetea |

2 Ordenatu hizkiak "eginbeharra, eginbidea; bete beharreko baldintza" esan nahi duen hitza osatzeko.

T B E B R A E H E → _____

3 Asmatu ezazu elkarte bat, eta ezarri han sartzeko bete behar diren hiru betebeharrak.

Elkartearen izena → _____

Jarduera → _____

Sartzeko bete behar diren baldintzak

1. _____

2. _____

3. _____

4

Irakurri Emoziotegiko 54. orrialdean **onarpenari** buruzko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra)**, dagokionaren arabera.

- Onartuak sentitzen gara norbaitek gure gaitasunak onartzen dituenean.
- Txaloelek eta laztanek onarpena adierazten dute.
- Norbaitek gure izaera alda dezagun nahi izateak onarpena adierazten du.
- Norbaitek onartzen gaituenean, zenbait gauza hobetu behar ditugula onartzen du.
- Onartuak sentitzen gara norbaitek gure gaitasunak soilik onartzen dituenean.

● Orain, zuzendu esaldi okerrak.

5

Idatzi **O (onarpena)** edo **E (etsaitasuna)**, pertsona bakoitzak adierazten duenaren arabera.

- Gorkaren aitak hala esan dio semeari: "Oso ondo jokutzen duzu tenisean, baina sake hori hobetu beharra daukagu".
- Gorkak hala esan dio Maitaneri, bere aitaren bikotekideari: "Ez zait gustatzen zuk egiten duzun ezer".
- Maitanek hala esan dio Gorkari: "Ziur nago elkarrekin ondo moldatzera iritsiko garela".
- Gorkak hala esan dio aitari: "Ez didazu inoiz irakatsi sakea ondo egiten".
- Gorkaren amak hala esan dio semeari: "Asko maite zaitut, seme, oso burugogorra zaren arren".

6

Emoziotegiko 54. orriko testuan, esaten da **hitz gozoek** estimua edo onarpena adierazten dutela. Zer dira hitz horiek? Aukeratu erantzun egokia, eta, gero, eman adibide bat.

- Zerbait beroa dagoela adierazteko balio duten hitzak dira.
- Norbait adoretzeko esaten dira hitzak dira.
- Hitz amultsu eta abegitsuak dira.

7

Aukeratu **bertute** hitzaren definizioa.

- Pertsonengan ontzat hartzen den nolakotasuna.
- Pertsonengan hobetu daitekeela jotzen den nolakotasuna.
- Zenbait gauzak edo pertsonak duten inperfekzio naturala.

● Ondoko hitz hauetatik, azpimarratu zein iruditzen zaizkizun **bertute**.

irmotasuna

burugogortasuna

eskuzabaltasuna

pazientzia

justizia

intolerantzia

mespretxua

elkartasuna

zukurkeria

indarkeria

8

Idatz itzazu zure jokabidean edo jarreran hobetu beharrekotzat jotzen dituzun bi alderdi. Gero, galdetu irakasle bati edo zure gurasoei ea ados dauden.

9 Irakurri egoera hau, eta erantzun.

Chris Euskal Herrira oso txikia zela iritsi zen mutiko alemaniar bat da. Gurasoak alemaniarrek ditu, eta haiekin alemanez hitz egiten du beti. Eskolan baditu zenbait lagun, baina beste mutiko batzuek, Josebak eta Julenek, adibidez, ez dute harekin ezer jakin nahi. "Zuk ez dakizu honetan jolasten, alemaniarra zara eta", esan zioten behin. Baina euskaldun ere sentitzen da, euskal ohitura asko baititu...

- Uste duzu denek onartzen dutela Chris Euskal Herrian? Nork ez du onartzen? Nola adierazten dute hori?

- Zergatik ez dute onartzen? Arrazoi ona iruditzen zaizu? Zergatik?

- Inoiz ukatu diozu zure onarpena norbaiti? Zergatik?

10

Nolako zara? Deskribatu zeure burua. Adierazi zure ezaugarri fisikoak, baita zure izaera nolako den ere.

- Pentsa ezazu hala esaten dizula norbaitek: "Asko gustatzen zatzaizkit, baina nahiago nuke ilea beste kolore batekoa bazenu". Pertsona hori onarpena adierazten ari zaizu? Zergatik?

- Ilearn kolorea aldatuko zenuke pertsona horri atsegin emateko? Zergatik?

11

Idatzi zaren bezala onartzen zaituzten hiru pertsonaren izenak, eta adierazi zer harreman duzun haietako bakoitzarekin.



Onarpena

OHARRAK

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html.